



URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA

«Sintomak gaitzen ari naiz, orain dela zortzi egun nabaritzen hasi eta gero»

Hernanin ere bada COVID-19 edo Koronabirusarekin kutsatu den herritarrik. Haietako batek Kronikarekin hitz egin du, eta azaldu du gripe «gogor bat bezala» ari dela pasatzen gaixotasuna, etxean. Astelehenean eman zuen positibo, probetan.

HERNANI KORONABIRUSA

COVID-19 edo Koronabirusaren bueltan, lurraldekako datu orokorrak ari dira ematen Osasungintzatik, baina horien artean, bada Urumea bailarakorik ere. Bere prozesua nolako ari den izaten eta nola daramakien kontatu dio Kronikari, positibo eman duen hernaniar batek.

Zer moduz zaude?

Orain sintomen fasean, baina aurreko egunetan baino hobeto. Errekuperatzen ari naiz.

Nola jakin duzu COVID-19 birusarekin kutsatu zarela?

Igandean egin zizkidaten probak, eta astelehenean baieztatu zidaten positibo eman nuela.

Egun bat geroago, beraz.

Horrela da, baina etxean nago. Ez naute ingresatu eta etxean geratzeko agindua dut ezertarako atera gabe.

Noiz konturatu zinen kutsatuta egon zitezkeela?

Martxoaren 11n, asteazkenean, lehendabiziko sintomak argi nabaritu nituen, nahiz eta asteartean zerbait sumatu. Eztula, eztarria gaizki, ondoeza nabaritu nituen. Hurrengo egunean oraindik ere okerrago nengo. Ondozak gora egin zuen, ez-tulak ere bai, nekatur nengo, buruko mina, sukarra neukan... Eta Osakidetzak herritarren arretarako jarri duen telefonora deitu nuen. Makinatxoak egiten zuen salto, eta inork ez zidan erantzuten; saiatu arren, ez zen posible izan.

Eta zer egin zenuen?

Etxean geratu eta hurrengo egunetan deitzen saiatu, baina ezerrez. Ostiralean ondoeza



Osakidetzak emandako telefonoan hainbatetan saiatu ondoren, Hernaniko anbulategira joan zen herritarra.

haunditu egin zen. Arnasketarako zailtasun gehiago nabaritu nuen, eta larunbatean berdin jarraitu nuen. Horiek izan dira bi egun okerrenak. Nire erabakia izan zen Hernaniko anbulategira joatea. Urgentzitarra joan nintzen, eta koronabirusa izatearen zantzia nuela esan nuen.

«Oso azkarra da proba; makiltxo batez, kanpanillaren atzean hartzen dizute lagina»

Babestu zinen anbulategira joaterakoan?

Bai. Maskarilla eraman nuen jarrita. Guanterik ez, ez neuzkalako etxean.

Zer gertatu zen orduan?

Gela batera eraman ninduten, sendagilea galderak egiten hasi zitzaidan, eta neumonia proba

egin zidaten. Apestatua sentitu nintzen, gelaren beste puntan zegoelako, baina hartu beharreko neurria da. Horrela da erreallitatea.

Zergatik neumonia proba?

Neumonia proban positibo eman ez gero, ospitalean ingresatuko ninduten, baina negatibo eman nuen. Galderak egin ondoren, etxera joateko esan zidaten. Nirekin kontaktuan jarriko zirela.

Nolako galderak izan ziren?

Ea zer egin nuen azkeneko egun eta asteetan. Nire mugimenduen berri jakin behar zuten, jakiteko nola kutsatu naizen.

Eta hurrengo egunean egin zizkiduten probak, ezta?

Bai, hala da, igandean egin zizkidaten. Etxera etorri ziren, eta bertan egin zizkidaten probak; eta esan zidaten, nirekin kontaktuan jarriko zirela. Astelehenean deitu zidaten eta positibo

eman nuela baieztatu zidaten.

Nolako da proba?

Belarritako makiltxo baten antzeko makiltxo bat erabiltzen dute, haundiagoa; ahotik sartu, eta kanpanillaren atzean lagina hartzen dute. Oso azkarra da.

Badakizu nun kutsatu zaren?

Ez, baina bi hipotesi nagusi egon daitezke egin dudana kontuan hartuz gero. Bidai bat egin nuen eta Barajaseko aireportuan egon nintzen lehendabiziko sintomak azaldu baino 13 egun aurretik. Sintomak asteazkenean nabaritu nituen eta lau egun aurretik sagardotegia eduki nuen eta ondoren Hernanin ibili nintzen parrandan. Lehendabiziko sintomak normalean kutsatu ondoren batipat 4, 5, 6 edo 7 garren egunean ateratzen direla esaten dute, baina 14 egunetara sintomak nabaritu dituztenak ere badaude. Beraz oraindik ez dakigu.

Jakin daiteke hori?

Nik ez dakit hori erantzuten, baina egunero deitzen didate, jakiteko zer moduz nagoen eta sintomen eboluzioa nolako izaten ari den. Esan zidaten informazioa biltzen ari direla, birus berri hau hobeto ezagutzeko. Dena da berria.

Bakarrik eraman duzu gaia?

Ez, senitartekoei esan nien ostiralean gaizki nengoela. Egunez egun, ostiraletik, dena nola joan den azaldu diet.

Ezagutzen duzu beste kasurik Hernanin?

Bai, eta hitz egin dugu. Berak dio Gasteizen kutsatu dela ziur asko, bertan egon baitzen.

Sintomak gripe baten antzekoak direla diote.

Horrela da?

Nire kasuan esan daiteke baietz. Zerbait indartsuago izan dela nabaritzen dut, baina oso antzekoa, bai.

Hemendik aurrera zein pauso eman behar dituzu?

Egunero deitzen didate, eta osasun arduradunen esanetara nago. Zortzi-bederatzi egun pasa dira aurreneko sintoma eduki nuenetik. Zenbat egun egon behar dudan isolatuta, eta gero kuarentenan, beraiek esango didate.

Nola daramazu hori, etxetik ezin ateratzearera?

Gaizki. Kalea, mendia, bidaiatzea asko gustatzen zait... ez naiz etxean sartuta egotea gustatzen zaion horietakoa, eta egia esan, ez daramakit oso ondo. Baina ez dago besterik. Birusa ez dutenak kalera irten daitezke erosketak egitera, edo lanera joateko. Ni horretarako ere ez. **K**

KRONIKAK PUBLIZISTA BEHAR DU ORDEZKAPEN BATERAKO

Bidali zure CV-a, martxoaren 23ra arte:
kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkartearen Larramendi 11 behean 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:
/ Euskerara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.
/ Iniziatiba eta enpatia.
/ Publizitate edo komunikazio ikasketak izatea.

ESKAINIKO ZAIJO:
/ Kontrata: sei hilabetetarako.
/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

BALORATUKO DA:
/ Urumea bailara ezagutzea.
/ Doberako bazkide izatea.
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.
/ Publizista lanetan esperientzia.
/ Maketatze eta diseinu programen ezagutza.
/ Sare sozialak menperatzea.

Baldintzak betetzen dituztenez artean probak egin ondoren bat aukeratu da.

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

GAUR Eguzkia izango da protagonista gaur ere, eta tenperaturak gora egingo du berriro. Goizean goizeko lainoak desagertu, eta eguzkitsu geratuko da. Hego-haizea libiliko da. **Min.10° / Max.21°**

BIHAR lido beretik jarraituko du eguraldiak bihar. Ostarreak eta lainoak tartekatuko dira zerruan, eta arratsaldean nahasiko da pixka bat. Tenperaturak koxka bat egingo du behera. **Min.9° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Odriozola** Idiazabal, 18 (Urnieta) **943 334014** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



«Gaitzespen gogorrena», herrian izandako bi eraso matxistei

Adierazpena helarazi du Astigarragako Udalak, martxoko aurreneko hamabostaldiko gertaerak salatzen. Sorraluzeko erailketa ere salatu du.

ASTIGARRAGA UDALA

«Gaitzespen gogorrena» azaldu nahi izan du Udalak, «gure herrian martxoko lehen hamabostaldian gertatu diren emakumeen kontrako indarkeria sexistak kasuen aurka». Era berean, «martxoaren 16an Sorraluzen gertatutako erailketa matxista salatu» du. Hori horrela, bat egin zuen Udalak, asteartean hilketa salatzen antolatutako ekimenekin; mugimendu feministak iluntzerako deitutako gaitzespen-kazeroladarekin, besteak beste.

Protokoloa martxan jarrita, erasotuei laguntza

Udalak «laguntza nahiz begikotasun osoa» adierazi nahi die «mota horretako erasoak pairatzen dituzten emakumei eta

beren ingurukoei». 2019 urtean Astigarragako Udalaren eraso matxisten aurrean jokatzen eta erantzuteko protokoloa sortu zen, eta azken bi gertaeren berri jakin bezain laster, «protokolo instituzionala aktibatu» duela ziurtatu du, «informazioa baloratzen, eta biktimei egokia

«Gure informazio eta baliabide guztiak jarri ditugu erasotutako emakumeen esku»

den arreta eman ahal izateko beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzeko». Horrela, Udalak dituen «informazio eta baliabide guztiak erasotutako emakumeen esku jarri ditu, baita bere onera etortzeko prozesuan

behar dezaketen laguntza guztia ere», azaldu duenez.

Hain zuzen, Udalak azaldu du protokoloa «ezinbesteko tresna» dela, «erantzun egoki, eraginkor eta bateratua emateko jendartearen ikusezin eta normalizatua dugun emakumeen kontrako indarkeria sexisten eta bestelako indarkeria matxisten aurrean. Alde batetik, protokolo honek Astigarragako Udalak emakumeen kontrako indarkeria sexistarekin eta indarkeria matxista mota guztiak amaitzeko duen konpromisoa berresten du. Bestetik, indarkeriaren prebentzioan eta arretan zuzenean lan egiten duten Udaleko sailen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzen ditu. Eta, azkenik, eta garrantzitsuena, emakumeen kontrako indarkeria sexistarekin zein bestelako indarkeria matxistekin amaitzeko egiten den lana hobetzen du, besteak beste, biktimei ematen zaien arreta hobetuta», adierazi du. **K**

Zerbitzu anitzetako langilearen deialdian, probak atzeratuta

Bost hautagai onartu dituzte, eta datorren astelehenean ziren probak egitekoak, baina atzeratu egin ditu Udalak, egungo egoera ikusita.

GOIZUETA UDALA

Otsaila eta martxoaren bitartean zabaldu zuen deialdia Udalak, zerbitzu anitzetako langile bat kontratatzen. Deialdia itxita eta hautagaien eskaerak jasota, aurreneko hautaketan onartutako zerrenda argitaratu zuen aurreko astean, eta probak egiteko zen orain; baina egungo egoera ikusita, atzeratu egin ditu, momentuz.

Sei hautagai aurkeztu ziren deialdira, eta bostek egin zuten aurrera. Horietatik lau, euskerara proba egin behar zuten herenegun; eta guztiak, idatzizko proba teoriko-praktikoa, datorren astelehenean, udaletxean. Hautagaiak jakinarenean gainean



Itxita dago udaletxea egunotan, eta emalez eta telefonoz egiten dute arreta.

daude, eta egoerak hobera egiten duenean zehaztuko dituzte data berriak.

Herrian hainbat lan egiteko behar du langile berria Udalak: elektrizitatea, igeltseritza, pintura, arotzeria, soldadura, mekanika, garbiketa, zangak ireki eta itxeko lanak, bide garbiketa, basoko lanak, administrazio zerbitzuei laguntzea... Probak egin eta prozesua osatu bitartean, baina, langile autonomo bat kontratatuta edukiko du Udalak, denbora horretan suer-

tatu daitezkeen lanak burutzeko, aurreratu zuenez.

Udaletxean, aurrez aurreko arretarik ez

Probak egin ez diren bezala, aurrez aurreko beste zerbitzurik ere ez du eskainiko Udalak, egun hauetan. Udaletxean, posta elektronikoki bidez (udala@goizueta.eus helbidean) edota telefonoz (948 51 40 06) soilik eginen diete arreta, tramiteren bat egin edota bestelako laguntza behar dutenei. **K**

Positiboak gora, eta beste hildako bat

41 positibo berri izan ziren atzo Gipuzkoako datuen eguneraketan; Nafarroan, 36 kasu berri bakarrik, baina laugarren hildako bat ere bai.

URUMEA KORONABIRUSA

Atzo eguerdian eguneratu zituzten, egunero bezala, COVID-19 birusaren eraginaren datuak, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako osasun zerbitzuek. Eta kontrastea egin zuten, bezperan emandakoekin.

Gipuzkoan, 41 positibo berri izan ziren azkeneko eguneraketan (bezperan positibo berri bakarra izan zen), eta dagoeneko 131 dira positibo eman dutenak.

Nafarroan, aldiz, gora ez, behera egin zuen kasu berrien kopuruak. 36 positibo berri izan ziren atzo (bezperan 76), eta 386 dira guztira. Hori bai, laugarren

hildako bat izan zen atzo goizaldean; 88 urteko gizon bat, beste gaixotasunen bat zeukana. **K**

ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN	NAFARROAN
41 positibo berri	36 positibo berri
131 positibo guztira	386 positibo guztira
5 hildako	4 hildako
39 ospitalizatuta	93 ospitalizatuta

Ludotekaren ordainketarik ez, oraingoz

ASTIGARRAGA XAGUXAR AISIALDI TALDEA

Urtero bezala, Aste Santuko oporraldian ludoteka antolatu zuen Xaguxar Aisialdi Taldeak, Astigarragan. Baina egungo egoera ikusita, ez dakite posible izango ote den, ludoteka egitea. Horregatik, jakinarazi dute, ludoteka egingo dela jakitean egingo direla ordainketak, ez lehenago. Izena eman duten guztiei, posta elektronikora idatziko diete, beharrezko informazio guztia emanez.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

XABI IRAZU GARMENDIA
Atzo hil zen, 65 urte zituela
- Goian bego -

Haren emaztea: Belen Isasa; alaba; Oihane eta Aitor Ateka; biloba: Alain; anai-arrebak: Merte eta Joxe Mari Mujika, Koro eta Luis Mujika, Txarli eta Anttoni Legorburu; ezkon anai-arrebak: Fernando eta Inma Larrañaga, Alejandro eta Merte Sierra, Josetxo eta Mari Luz Rodríguez, Jesus eta Rema Moreno; ilobak: Urtzi eta Lierni, Xuban, Haitz, Ekain, Manex, Araitz eta Aitor, Nile, Koldo eta Ane, Jon Mikel eta Eider, Eider eta Mikel, Nere, Libe, Uxue eta Jon, Julen, Alex eta Larratiz, Leire eta Mikel, Idoia eta Imanol, Judith eta Gorka, Saioa, Xabi, Haritz; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Zoritxarrez, egungo egoera dela eta, ezingo ditugu zuen doluminak pertsonalki jaso, baina bihotzez eskertzen dugu zuen elkertasuna.

Hernanin, 2020ko martxoaren 19an

XABI IRAZU GARMENDIA
Ez zaitugu ahaztuko

SANTA BARBARA ELKARTEA

Hernanin, 2020ko martxoaren 19an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**